

LANKIDETZA GLOBALAREN BAROMETROA 2024

Posted on 18/01/2024 by Naider

Munduko Ekonomia Foroaren [2024ko Lankidetzaren Globalaren Barometroaren](#) arabera, pandemiaren osteko lankidetzaren multilateralitatea gelditu egin da, 2020tik % 2 jaitsi baita, eta lankidetzaren polikrisi testuinguru batean birirudikatu behar dela dio.

Aldaketak kuantifikatzeko, barometroak lankidetzaren ekintzak edo lankidetzaren emaitza neurtzen dituzten 42 adierazle identifikatzen ditu, bost zutaberen inguruan: merkataritza eta kapitala, berrikuntza eta teknologia, klima eta kapital naturala, osasuna eta ongizatea, eta bakea eta segurtasuna.



